



DOMUSA TEKNIK 40 | 15 MLK

MENDI LASTERKETA



DOMUSA TEKNIK 40 MLK, distantzia luzeko mendi lasterketa bat da, Ultra Trail izenez ere ezagun dira lasterketa mota hauek. Urola erdiko mendi eta herriak zeharkatuz, Azpeitian hasi eta amaituko da lasterketa.

Lasterketak 65 Km eta 3.700mko desnibel positiboa izanik, lasterketa gogorra dela esan daiteke, beraz, partaideak egoera fisiko onean eta ondo prestatuak egotea ezinbestekoa izango da.

Aldiz, **DOMUSA TEKNIK 15 MLK**, distantzia ertaineko mendi lasterketa bat da 26 Km eta 1.400mko desnibel positiboa izanik.

Ondorengo araudi honetan lasterketak ahalik eta ondoen ateratzeko ezinbesteko arauak azaltzen dira, bai antolakuntza aldetik zein partaideen aldetik. Lasterketan izena emateak araudi hau irakurri eta onartzea dakar berarekin.



INDIZEA

1 ANTOLAKUNTZA	4
2 EGUNA ETA LEKUA	4
3 IBILBIDEA	4
3.1 IBILBIDE OFIZIALA	4
3.2 IBILBIDE ALDAKETAK	6
3.3 SEINALEZTAPENA	6
3.4 IGAROTZE KONTROLAK	6
3.5 KANPORATZE POSTUAK ETA ORDUTEGI MUGAK	7
3.6 ORDEZKO IBILBIDEA	7
4 PARTE HARTZEA	7
4.1 BALDINTZA OROKORRAK	7
4.2 IZEN-EMATEA	8
4.3 ZOZKETAREN MEKANIKA	10
4.4 EMAITZEN KOMUNIKAZIOA	10
4.5 ITXARON ZERRENDA	10
4.6 DORTSALEN TITULARTASUNA	11
4.7 DATUEN BABESA	11
4.8 IZEN-EMATEA BALIOGABETZEKO BERMEA	11
4.9 IZEN-EMATE BALIOGABETZEA	11
5 KATEGORIAK ETA LEHIAKETA	13
5.1 KATEGORIAK	13
5.2 LEHIAKETAK	13
6 SARIAK	14
7 DORTSALEN BANAKETA ETA KONTSIGNA	16
7.1 DORTSAL BANAKETA	16
7.2 KONTSIGNA	16
8 EZINBESTEKO MATERIALA	17
9 ANOA GUNEA ETA KANPO LAGUNTZA	19
9.1 ANOA GUNEA	19
9.2 KANPOKO LAGUNTZA	20
10 LASTERKETA UZTEA	21
10.1 LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA	21
10.2 LASTERKETA UZTEKO PUNTUAK	21
11 ROAD BOOK-A	22
12 SAILKAPENAK ETA ERREKLAMAZIOAK	22
12.1 SAILKAPENAK	22
12.2 ERREKLAMAZIOAK	22
13 INGURUMENA	22
14 SEGURTASUNA	23
14.1 OSASUN ZERBITZUA	23
14.2 SEGURTASUNA	23
14.3 LAGUNTZA EZBEHARRETAN	23
15 ERANTZUKIZUNAK	23
15.1 ERANTZUKIZUNA	23
15.2 AHAZTU EDO GALDUTAKO OBJEKTUAK	24
16 ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK	24
17 IRUDI ESKUBIDEAK	25
18 DATU PERTSONALEN BABESA	25
18.1 INFORMAZIOA PARTEKATZEA	26
19 ARAUDI ALDAKETAK	26
20 OSASUN EGOERA ARAUAK	26
21 BESTE ARAUDIAK	27

1 ANTOLAKUNTZA

DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketa, Azpeitiko **Lagun Onak M.B.**-k antolatzen du. (Kirol Elkarteen Erregistroko zenbakia: 300 [1986ko Maiatzaren 19an erregistratua]). Horretarako Urola Erdiko turismo bulegoaren babesa du eta Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizamako udalen elkarlana.

2 EGUNA ETA LEKUA

Lasterketa, **2026ko Maiatzaren 9**an izango da. Lasterketei irteera Azpeitiko Enparantza Nagusitik emango zaie, **Goizeko 8:00tan 40 MLK** lasterketari eta **9:00tan 15 MLK** lasterketari, ezinbestekoa izango da ANTOLAKUNTZAK emandako argibide denak jarraitzea.

3 IBILBIDEA

3.1 Ibilbide ofiziala

40 MLK

Lasterketak, 65 Km eta 7.400 metroko desnibel metatua dauka (3.700+). Azpeitian hasi eta amaituko da, tartean, Urola erdiko hainbat mendi eta herrixka zeharkatu ondoren. Hauek dira pasa beharreko leku esanguratsuenak:

- Azpeitia
- Arroita (Arauntza)
- Sañoa
- Gazume
- Hernio
- Murumendi
- Mandubia
- Izazpi
- Hiruarrieta (Samiño)
- Larrume-txiki
- Munoaundi
- Loiola
- Izarraizko atea
- Xoxote
- Azpeitia



Ibilbidea lursail pribatuetatik igarotzen denez eta ingurugiroa babestu asmoz, azken unerarte ez da ibilbide zehatza zein izango den jakinaraziko. Dena den, ibilbide hau gutxi gorabeherakotzat hartu behar da, ANTOLAKUNTZAK edozein momentutan eta arrazoi ezberdinengatik aldatzeko eskubidea bait du.

15 MLK

Lasterketak, 26 Km eta 2.800 metroko desnibel metatua dauka (1.400+). Azpeitian hasi eta amaituko da, tartean, Urola erdiko hainbat mendi zeharkatu ondoren. Hauek dira pasa beharreko leku esanguratsuenak:

- Azpeitia
- Igarate
- Larrume-txiki
- Munoaundi
- Loiola
- Izarraizko atea
- Xoxote
- Azpeitia

Ibilbidea lursail pribatuetatik igarotzen denez eta ingurugiroa babestu asmoz, azken unerarte ez da ibilbide zehatza zein izango den jakinaraziko. Dena den, ibilbide hau gutxi gorabeherakotzat hartu behar da, ANTOLAKUNTZAK edozein momentutan eta arrazoi ezberdinengatik aldatzeko eskubidea bait du.

3.2 Ibilbide aldaketak

ANTOLAKUNTZAK bere esku dagoen dena egingo du ibilbide eta ordutegiak mantentzeko, baina hauek aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea izango du segurtasun, antolakuntza edo beste edozein arrazoiengatik.

Lasterketaren antolakuntzarako eta derrigorrezko materiala zehazteko orduan bezperan EUSKALMET (Euskal Meteorologia Agentzia)-ek eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak igorritako txostenak hartuko dira kontutan.

Edozein aldaketa izan orduko parte-hartzaileei horren berri emango zaio ahalik eta azkarren. Behin lasterketari irteera eman ondoren aldaketarik egin beharko balitz, ANTOLAKUNTZAK egokien ikusten duen kontrol-posturen batean emango die honen berri partaideei.

Lasterketa punturen batean gelditu beharra izan ezker, korrikalari guztiek igarotzeko aukera izan duten azken kontroleko iristeko hurrenkeraren arabera emango da sailkapena.

ANTOLAKUNTZAK lasterketa hasi baino lehenago lasterketa atzeratzeko edo bertan behera uzteko erabakia hartuko balu, kasuan kasuko egoeraren arabera itzulketaren zenbatekoa zehaztuko du hilabete baino gutxiagoko epean web gunean publikatuz.

3.3 Seinaleztapena

Seinaleztapena probako kartel, banderatxo eta zintarekin egingo da. Ahal den neurrian markak distantzia erregular batean egongo dira banatuta, dena den inguru biratsu edota ikusteko bisibilitate gutxi duten guneeetan maiztasuna haundiagoa izango da.

Derrigorrezkoa da seinaleztatutako bidetik ez irtetzea, ingurugiroan ahalik eta higadura gutxien sortze aldera. Betebehar hori ez betetzeak lasterketako epaileak lehiaketatik kanporatzea ekarriko du.

Seinaleztatutako bidetik irtetzen den parte-hartzaile oro ez da ANTOLAKUNTZAREN ardurapean egongo.

3.4 Igarotze kontrolak

Ibilbidean zehar hainbat igarotze kontrol izango dira eta derrigorrezkoa izango da puntu horietatik pasatzea. Igarotze kontrolak erraz ikusteko moduan kokatuak egongo dira eta parte-hartzaileek soinean eramango duten txip batek ziurtatuko du parte-hartzailea bertatik pasa dela. Dena den, derrigorrezkoa izango da dortsala uneoro soinean eta ikusgai eramatea.

Igarotze kontroletik pasa ezean, parte-hartzaileak ibilbide osoa ez duela egin kontsideratuko da eta lasterketako epaileak zigortu edo deskalifikatu dezakelarik.

Igarotze kontrolak honakoak izango dira:

40 MLK	
Gazume	11 Km
Iturburu	19 Km
Murumendi	29,5 Km
Mandubia	33,9 Km
Samiño	43 Km
Larrume-txiki	48,3 Km
Izarraitzeko atea (Ikasberri)	53,8 Km
Xoxote	59,7 Km

15 MLK	
Larrume-txiki	8,9 Km
Izarraitzeko atea (Ikasberri)	14,7 Km
Xoxote	20,7 Km



3.5 Kanporatze postuak eta ordutegi mugak

Helmugan sartzeko gehieneko denbora **40 MLK** lasterketan **hamabi ordu (12h)** izango da eta **15 MLK** lasterketan berriz **bost ordukoa (5h)**.

Ibilbidean zehar beste 3 ordutegi muga izango dira.

40 MLK		
LEKUA	ORDUA	KM
ITURBURU	11:30 (3h30)	19 Km
MANDUBIA	14:00 (6h00)	33,9 Km
IZARRAITZEKO ATEA (IKASBERRI)	17:15 (9h15)	53,8 Km

15 MLK		
LEKUA	ORDUA	KM
IZARRAITZEKO ATEA (IKASBERRI)	11:45 (2h45)	14,7 Km

Ordutegi-muga hauek aldatuak izan daitezke segurtasun arrazoiak direla medio.

Parte-hartzaileraren bat denboraz kanpo irtetetzen bada kanporatze-postu batetik ezin izango du lasterketan jarraitu eta helmugara garraiatuko du ANTOLAKUNTZAK. Bere kabuz ibilbidean jarraitzen badu, dortsala itzuli beharko du eta nahiz eta berau ez itzuli ANTOLAKUNTZAREN erantzukizunetik kanpo geratuko da eta bere ardurapean egingo du ibilbidea, eta ondorio guztietarako lehiaketan deskalifikatu gisa agertuz (ez parte-hartzaile aktiboa), lehiaketan kirolari guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako epeei buruz araudi honetan adierazitakoa ez betetzeagatik.

3.6 Ordezko ibilbidea

Eguraldi oso txarra eta oso arriskutsua izango balitz, ANTOLAKUNTZAK ordezko ibilbide bat izango du prest. Ibilbide hau zein izango den ez da publiko egingo.

Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, ANTOLAKUNTZAK egokia ikusten duen lekuren batean emango die erabaki horren berri partaide guztiei.

4 PARTE HARTZEA

4.1 Baldintza orokorrak

Lasterketan parte hartu ahal izateko 18 urteak beteak izan beharko dira probaren erreferentziazko urtean. Izena ematean parte-hartzaileak araudia hau onartzen duela adierazten du.

40 MLK eta 15 MLK probetan parte hartu ahal izateko, **EZ** da derrigorrezkoa izango mediku ziurtagiria bidaltzea. Hala ere, biziki gomendatzen dugu mediku azterketa edo esfortzu proba bat eginda egotea. Gai honi buruzko edozein zalantza izanez gero izenemateak@domusateknik40mlk.com helbidera idaztea eskatzen dizuegu.

Lasterketaren gogortasuna kontutan izanda ANTOLAKUNTZAK federatua egotea gomendatzen du.

4.2 Izen-ematea

40 MLK eta **15 MLK** lasterketen izen emateak zozketa bidez izango dira.

Aurre-izen emateak azaroaren 5ean arratsaldeko 18:00etan irekiko dira eta azaroaren 11an gaueko 23:59etan itxiko dira.

Zozketak, azaroaren 14an arratsaldeko 18:30etan egingo dira. Hiru zozketa izango dira guztira eta parte hartzaile bakoitzak ausazko zenbaki bakarra jasoko du zozketarako. Hiru zozketak, Azpeitiko Udaletxean egingo dira udal ordezkarien gainbegiradapean.

Dortsalen banaketak honela egingo dira:

15 MLK

200 dortsal emakumeentzat

200 dortsal gizonezkoentzat

Genero batean zozketatutako dortsal kopurua ez bada osorik betetzen, soberan geratzen diren dortsalak beste generoari gehituko zaizkio.

40 MLK

550 dortsal orokor

ANTOLAKUNTZAK 75 dortsal erreserbatuko ditu: 25 dortsal 15MLK lasterketarako eta 50 dortsal 40 MLK lasterketarako. Dortsal hauek antolakuntzaren konpromezuetarako, babesleentzat eta 40 MLK proban emakumeen %10eko partaidetza bermatzeko izango dira.

ADII!: DORTSALA, IZENA EMATEN DUEN PERTSONAK BAKARRIK ERABILI AHAL IZANGO DU, BESTERENEZINA DA. NORBAITEK LASTERKETAN BESTE PERTSONA BATEN DORTSALAREKIN PARTE HARTUKO BALU, ANTOLAKUNTZAK PERTSONA HORI DESKALIFIKATZEKO EDOTA DATOZEN URTEETAN BERAIEIEN (DORTSALA EMAN DUENA ETA ERABILI DUENA) IZEN EMATEA EZ ONARTZEKO ESKUMENA IZANGO DU.

Izen emateak honakoa bermatzen du.

- Lasterketan parte hartzea.
- Istripu eta Erantzun zibileko aseguruia.
- Lasterketan zehar osasun laguntza.
- Anoa postutara sarrera.
- Korrikalariaren poltsa.
- Kontsigna zerbitzua.
- Dutzak.
- Suspertze zerbitzua (fisioterapeutekin).



- Parte-hartzaileentzat lasterketa ondorengo otordua.
- Road book (formatu elektronikoan).
- Lasterketa uzten dutenentzako Azpeitiara eramateko doako garraio zerbitzua. Zerbitzu hau, beti ere, ANTOLAKUNTZAK zehaztutako puntuetatik izango da.

IZEN-EMATE DATA	40 MLK	15 MLK
	OROKORRA	OROKORRA
2025-11-05etik 2025-12-31 arte	80 €	42 €
2026-01-01etik 2026-03-31 arte	85 €	47 €

4.3 Zozketaren mekanika

Parte hartzaile bakoitzari ausazko zenbaki bakarria esleituko zaio.

Zozketa bakoitzean (**15MLK** gizonezkoak, **15MLK** emakumezkoak eta **40MLK** orokorra), ausazko zenbaki bat aterako da.

Ateratako zenbakitik hasita, dortsalak zenbaki korrelatiboan esleituko dira. Azken zenbakira iritsitakoan, kontua 1etik hasiko da berriro, dortsal guztiak esleitu arte.

Ondoren, onartutako parte-hartzaileen zerrenda eta itxaron zerrenda osatuko dira, zenbaki korrelatiboaren arabera.

Zozketa publikoa izango da Azpeitiko Udaletxean eta lasterketaren Youtube kanalaren bidez eskeinitako da zuzenean. Udal ordezkariak bertan izango dira zozketa gainbegiratzeko.

4.4 Emaizten komunikazioa

Behin gainbegiratzaileek zozketaren zuzentasuna baieztatzen dutenean, emaitzak ofizialtzat hartuko dira eta onartutako parte-hartzaileen zerrendak www.domusateknik40mlk.com orrialdean publikatuko dira.

Azaroaren 18tik aurrera, zozketan hautatutako parte hartzaileek posta elektronikoko bidez jasoko dute jakinarazpena, eta bertan azalduko dira izen ematea amaitzeko urratsak.

Hautatutakoek izen ematea guztiz burutzeko, posta elektronikoko bidez jakinarazpena jaso dutenetik 72 orduko epea izango dute ordainketa egiteko.

Epe hori igaro eta ordainketa egiten ez bada, parte hartzailearen dortsala bertan beheara geratuko da, eta itxaron zerrendako hurrengoari esleituko zaio hurrenkeraren eta 4.5 puntuan aipatutako irizpideen arabera.

4.5 Itxaron zerrenda

Zozketa bakoitzak bere itxaron zerrenda izango du.

Parte-hartzaileak zerrendan hurrenkera errespetatuz sartuko dira, eta dortsalak posizioaren arabera esleituko dira.

15 MLK proban, gizonezko batek baja ematen badu, bere dortsala hurrengo gizonezkoari pasako zaio; emakumezko batek baja ematen badu, aldiz, hurrengo emakumeari.

40 MLK proban, edozein baja itxaron zerrenda orokorraren arabera beteko da, hurrenkera eta posizioa errespetatuz.



4.6 Dortsalen titulartasuna

Zozketa egin ondoren, ezingo da titularra aldatu inolaz ere.

Izen ematea, zozketan izena eman duen pertsonak berak formalizatu beharko du eta ezingo da beste inori pasa.

Behin izen ematea eginda, dortsala ezingo da titularrez aldatu, inolako kasutan.

4.7 Datuen babesa

Emandako datu pertsonalak (EB) 2016/679 Araudiaren (RGPD) arabera tratatuko dira, zozketan parte hartzea eta probetan izen-ematea kudeatzeko helburuarekin.

4.8 Izen-ematea baliogabetzeko bermea

Izena ematean izen-emate baliogabetze berme bat kontratatu ahal izango da 10€ ordainduz.

Berme hau kontratatzeak izen-ematearen gastuak itzultzeko aukera ematen du baldin eta izen-emate epea itxi aurretik ondorengo baldintzaren bat betetzen bada:

- Parte-hartzailearen gaixotasun larri, istripu edo heriotza.
- Parte-hartzailearen bikote, edo lehen mailako arbaso edo ondorengoen gaixotasun (ospitalizazioarekin) edo heriotza lasterketa egunaren aurreko 15 egunetan.
- Parte-hartzailea haurdun egoteagatik.

Parte-hartzailearen gaixotasun larri edo istripuen kasuetan, proban parte hartzeko kontra-aholkua ematen duen medikuak sinatutako eta zigilatutako mediku-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Beste edozein arrazoi agintari eskudunak sinatu, zigilatu eta emandako ziurtagiri baten bidez justifikatu behar da. Deuseztatzeko eskaera oro, gertaera gauzatu eta gehienez ere 10 egun naturaleko epean bidali behar da.

4.9 Izen-emate baliogabetzea

Edozein izen-emateren baliogabetzea email bidez egin beharko da (izenemateak@domusateknik40mlk.com), eskaeran izen-ematearen erreferentzia zenbakia adieraziz.

Parte-hartzaileak izen-emate baliogabetze bermea kontratatu badu eta aurreko puntuak betetzen badira, izen-ematearen %100a jaso ahal izango du (izen-emate baliogabetze bermearen 10€ izan ezik).

Gainontzeko kasuetan, diru itzulketa egiteko ondorengo irizpideak izango dira kontutan:

BALIOGABETZE ESKAERA DATA	40 MLK	15 MLK
2025-11-18tik 2025-12-31ra	45 €	20 €
2026-01-01tik 2026-02-28ra	35 €	15 €
2026-03-01tik 2026-03-31ra	30 €	10 €

2026ko apirilaren 1eko 0:00tik aurrera ez da itzulketarik onartuko.



5 KATEGORIAK ETA LEHIAKETAK

5.1 Kategoriak

Sailkapena egiteko orduan, gizonezkoa eta emakumezkoa bereiztuz, ondorengo kategoriak izango dira kontutan:

- Orokorra: Parte-hartzaile guztiak.
- Bailarakoa: Urola bailarako parte-hartzaile guztiak (Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz, Beizama, Azkoitia, Zestoa, Zumaia eta Aizarnazabalgoak).
- Herrikoa: Azpeitian erroldatutakoak.

5.2 Lehiaketak

Lasterketaren barnean ondorengo sailkapen hauek izango dira:

40 MLK

SAILKAPEN OROKORRA

- Parte hartzaileak: Guztiak.
- Sailkapenak: Gizonezkoak eta emakumezkoak.

BAILARAKO SAILKAPENA

- Parte hartzaileak: Bailarakoak.
- Sailkapena: Gizonezkoak eta emakumezkoak.

SAILKAPEN HERRIKOIA

- Parte hartzaileak: Herrikoiak.
- Sailkapena: Gizonezkoak eta emakumezkoak.

15 MLK

SAILKAPEN OROKORRA

- Parte hartzaileak: Guztiak.
- Sailkapenak: Gizonezkoak eta emakumezkoak.

SAILKAPEN HERRIKOIA

- Parte hartzaileak: Herrikoiak.
- Sailkapena: Gizonezkoak eta emakumezkoak.

6 SARIAK

Ondorengo sariak izango dira Lehiaketa bakoitzean.

40 MLK

SAILKAPEN OROKORRA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izango dira:

1. Postua: Txapela, garaikurra, 800€ eskudirutan eta bertako produktuekin osatutako saski bat.
2. Postua: Garaikurra eta 650€ eskudirutan.
3. Postua: Garaikurra eta 500€ eskudirutan.
4. Postua: 350€ eskudirutan.
5. Postua: 250€ eskudirutan.

BAILARAKO SAILKAPENA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izango dira:

1. postua: 2 bazkari/afari.

SAILKAPEN HERRIKOIA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izango dira:

1. postua: 2 bazkari/afari.

LASTERKETAKO ERREKORRA

Gizon zein emakumeen kategoria absolutuan errekorra egiteak 300€ko diru-saria izango du.

5:53:33 (Borja Zubizarreta-2023) gizonetzkoen kasuan eta 7:04:56 (Gemma Arenas-2024) emakumezkoen kasuan.

FINISHER JANTZIA

Gehienezko denboraren barruan helmugaratzen diren lasterkariak FINISHER jantzi bat jasoko dute. **Jantzia, egunean bertan jaso beharko da** (ez da gordeko) helmugan egongo den banaketa postuan eta ez da bidalketarik egingo.



15 MLK

SAILKAPEN OROKORRA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izango dira:

1. Postua: Txapela, garaikurra, 300€ eskudirutan eta bertako produktuekin osatutako saski bat.
2. Postua: Garaikurra eta 200€ eskudirutan.
3. Postua: Garaikurra eta 100€ eskudirutan.

SAILKAPEN HERRIKOIA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izango dira:

1. postua: 2 bazkari/afari.

LASTERKETAKO ERREKORRA

Gizon zein emakumeen kategoria absolutuan errekorra egiteak 100€ko diru-saria izango du. 2:02:13 (Aritz Egea-2024) gizonezkoen kasuan eta 2:20:38 (Ikram Rharsalla-2025) emakumezkoen kasuan.

7 DORTSALEN BANAKETA ETA KONTSIGNA

7.1 Dortsal banaketa

Dortsal banaketa Azpeitiko plazan egingo da, 2026ko Maiatzaren 8an, ostirala, 17:30etatik 20:00etara, eta, probako egun berean, 6:00etatik 7:30etara (**15MLK**-koek 8:00 arte), leku berean (Aldaketaren bat egonez gero, Web orrian zein sare sozialetan adieraziko da).

Parte-hartzaile bakoitzari korrikalari poltsa emango zaio, bertan dortsala eta txipa egongo direlarik. Era berean, antolakuntzako boluntarioak erabilera bakarreko identifikaziorako eskumuturrekoa jarriko dio. Derrigorrezkoa izango da probak irauten duen bitartean eskumuturreko hau erabiltzea, berau izango bait da ANTOLAKUNTZAK eskainitako zerbitzuetarako sarbidea: Irteera puntua, kontsigna, anoa guneak, erretiratuen garraioa, dutexak, ...).

Parte hartzaile bakoitzak, norbere dortsala bakarrik hartu ahal izango du, ezingo da beste pertsona baten dortsala jaso.

Izena eman duen lasterkari batek ezin badu lasterketan parte hartu, beste pertsona batek jaso ahal izango dio bere korrikalari poltsa, aurrez bere N.A.N erakutsita. Kasu horretan, ez zaio emango ez dortsalik eta ez identifikazio eskumuturrekorik.

7.2 Kontsigna

Irteera/helmuga inguruan kontsigna-zerbitzua izango da, Udaletxe azpiko arkupetan hain zuzen ere. Berau erabili ahal izateko nahitaezkoa izango da dortsala eta eskumuturrekoarekin parte-hartzailea identifikatua egotea.

Poltsan dagoen materiala ez da egiaztatuko, ondorioz ez da erreklamaziorik onartuko eta ez da gomendatzen baliozko ezer bertan uztea.



8 EZINBESTEKO MATERIALA

Korralitoan sartzerakoan derrigorrezko materialaren kontrola egingo da, beraz derrigorrezkoa izango da lasterketan parte hartu ahal izateko material dena soinean izatea. Lasterketako edozein puntutan ere kontrolak egin ahal izango eta helmugara derrigorrezko materialarekin sartu beharko da. Parte-hartzaile batek lasterketako edozein puntutan derrigorrezko material guztia ez badu, Lasterketako epaileak deskalifikatu egingo du.

Lasterketa egunean inongo adierazpenik ezean, **eraman beharreko ezinbesteko materiala** honakoa da.

40 MLK

- Mendiko oinetakoak edo oinetako minimalistak edo alternatiboak, horiek erabiltzeko baldintzekin.
- Haize-babesgailua.
- Biziraupenerako tapaki termikoa (1,20 X 2,10 gutxienez).
- Ura gordetzeko edukiontzia, litro bat gutxienez.
- Sakelako telefonoa, piztuta eta batería nahikoarekin.
- Txanoa, bisera edo buffa.
- Edalontzia (Bidoiek balio dute, ez da edalontzirik egongo anoa postuetan).
- Gainean daramazuen jatekoa dorsal zenbakiz markatua.

Eguraldi txarra izanez gero:

- Zira iragazgaitza txapelarekin.
- Galtza edo malla luzeak (belauna tapatua eraman beharko da). Galtza pirata eta galtzerdi luzeak ere baliozkoak izango dira baldin eta hanka guztia estaltzen badute.
- Kamiseta manga luze termikoa.
- Eskularruak.

Material gomendagarria:

- Bastoiak (erabiliz gero, lasterketa osoan zehar eraman beharko dira gainean. Korralito sarreran dortsala markatuko da).
- GPS gailua.

ADII: ANTOLAKUNTZAK LASTERKETA BEZPERAN ZEHAZTUKO DU WEB ORRIALDEAN, SARE SOZIALETAN ETA DORTSALA JASOTZERAKO ORDUAN ZEIN IZANGO DEN LASTERKETAN ERAMAN BEHARKO DEN EZINBESTEKO MATERIALA.

ADII: 40 MLK LASTERKETAN KORRALITOA 7:15TAN IREKIKO DA ETA 7:45TAN ITXIKO DA. IRTEERA ORDURAKO KORRIKALARI DENEK KONTROLA PASATA EGON BEHARKO DUTE. KORRALITOAN GARAIZ SARTZEA GOMENDATZEN DA IRTEERA ORDUA EZ BAITA ATZERATUKO.

15 MLK

- Mendiko oinetakoak edo oinetako minimalistak edo alternatiboak, horiek erabiltzeko baldintzekin.
- Biziraupenerako tapaki termikoa (1,20 X 2,10 gutxienez).
- Edalontzia (Bidoiek balio dute, ez da edalontzirik egongo anoa postuetan).
- Haize-babesgailua.

Eguraldi txarra izanez gero:

- Zira iragazgaitza txapelarekin.

ADI!: ANTOLAKUNTZAK LASTERKETA BEZPERAN ZEHAZTUKO DU WEB ORRIALDEAN, SARE SOZIALETAN ETA DORTSALA JASOTZERAKO ORDUAN ZEIN IZANGO DEN LASTERKETAN ERAMAN BEHARKO DEN EZINBESTEKO MATERIALA.

ADI!: 15 MLK LASTERKETAN KORRALITOA 8:30TAN IREKIKO DA. KORRALITOAN GARAIZ SARTZEA GOMENDATZEN DA IRTEERA ORDUA EZ BAIT DA ATZERATUKO.



9 ANOA GUNEA KANPO LAGUNTZA

9.1 Anoa gunek

Anoa guneen hasiera eta amaiera puntuak identifikatuak egongo dira.

Anoa gunetan likidoa parte-hartzailearen edalontzietara emango da, ANTOLAKUNTZAK ez du inolako edalontzirik eskainiko.

Anoa gunek bakoitzean, zabor ontziak egongo dira, hondakin bakoitza nora bota behar den adierazten duten karteekin, **DERRIGORREZKOA** izango da zabor bakoitza bere lekura botatzea. Hau betetzen ez duen lasterkaria, Lasterketako epaileak kanporatu dezake.

Anoa guneko arduradunak parte-hartzaileen laguntzaileei sarrera mugatu edo eragotzi diezaiekete gunearen kudeaketa errazteko.

Helmugako anoa gunek gain, bederatzi anoa gunek izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan, produktu energetikoak eta hidratatzaileak egongo dira.

40 MLK

LEKUA	DISTANTZIA	ZER DAGO?
Komizulotza	8,7 Km	Likidoa
Iturburu	19 Km	Likidoa + solidoa
Maramendiko lepoa	27 Km	Likidoa
Mandubia	33,9 Km	Likidoa + solidoa + pasta
Pagotxeta	41,6 Km	Likidoa + solidoa
Larrume txiki	48,3 Km	Likidoa
Izarraizko atea (Ikasberri)	53,8 Km	Likidoa + solidoa
Pistako langa	56,8 Km	Likidoa
Xoxoteko aterpea	59,7 Km	Likidoa
Helmuga	65 Km	Amaierako anoa gunea

15 MLK

LEKUA	DISTANTZIA	ZER DAGO?
Aizpuru Behekoa	4,6 Km	Likidoa
Larrume txiki	8,9 Km	Likidoa
Izarraizko atea (Ikasberri)	14,7 Km	Likidoa + solidoa
Pistako langa	17,7 Km	Likidoa
Xoxoteko aterpea	20,7 Km	Likidoa
Helmuga	26 Km	Amaierako anoa gunea

9.2 Kanpoko laguntza

40 MLK lasterketan, kanpoko laguntza honako anoa guneeetan bakarrik egongo da baimenduta:

- ITURBURU - 19KM
- MANDUBIA - 33,9KM
- IZARRAIZKO ATEA - 53,8KM

15 MLK lasterketan, kanpoko laguntza honako anoa gunean bakarrik egongo da baimenduta:

- IZARRAIZKO ATEA - 14,7KM

Bertan egongo diren hasiera puntua eta amaiera puntuaren tartean bakarrik lagundu ahal izango da.

Laguntzaileak antolakuntzak emandako txartel identifikatzailea agerian izan beharko du. **Identifikazio txartela, dortsala jasotzerakoan** eskeiniko da eta **Roadbook-ean** ere imprimaki moduan eskuragarri egongo da.

Laguntzaileak ezin izango du anoa gunen barnera sartu, baldin eta bertako arduradunak ez badio uzten.

Laguntzaileak identifikatuak egon beharko dute antolakuntzak horretarako prestatutako akreditazioarekin.

Laguntzaileak jateko/edatekoa eman ahal izango dio lasterkariari, beti ere araudia beteaz (jatekoak dortsala zenbakia markatua izan beharko du).

Laguntzaileak aldatzeko arropa eman ahal izango dio lasterkariari baina lasterkariak kentzen duen arropa, berarekin eraman beharko du helmuga arte.

Era berean erbi lanak, parte-hartzaileari ibilbidean zehar laguntzea edota animaliekin lagunduta joatea debekatua dago.

Puntu hauek ez betetzeak, Lasterketako epaileak parte-hartzailea deskalifikatzea ekar dezake.



10 LASTERKETA UZTEA

10.1 Lasterketa bertan behera uztea

Lasterketa uztea erabakitzen duen parte-hartzaile orok gertuen duen "Lasterketa uzteko puntura" joan beharko du (10.2 atala) baldin eta lesio edo istripuren batengatik ez bada. Lesio edo istripu kasuetan, parte-hartzailea oinez ezin bada "Lasterketa uzteko puntura" iritsi ANTOLAKUNTZAren harremanetan jarri beharko da salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. **Emergentzia telefono zenbakia dortsalean idatzita egongo da (604 146 803).**

Estaldura arazoengatik ezin bada ANTOLAKUNTZAren harremanetan jarri larrialdietako 112 telefono zenbakira deitu beharko du.

Kasu hauetan gainontzeko parte-hartzaileen elkartasuna erabakigarria izaten denez honelako egoeraren bat ikusten duen edozein parte-hartzailek bere laguntza eskaini beharko du.

Gainontzeko kasuetan, proba uztea erabaki duen parte-hartzaileak, proban erratz lanetan doazenei edo ANTOLAKUNTZAko edonori adierazi beharko dio bere asmoen berri eta **txipa itzuli beharko du kontrol edo anoa gunean**. Ondoren Azpeitira bueltan eramango dute.

Parte-hartzaileak dortsala eta eskumuturrekoa gorde beharko ditu ANTOLAKUNTZAren zerbitzuak erabili ahal izateko.

Osasun-arrazoiengatik, edozein unetan, antolakuntzako mediku-taldeak edozein parte-hartzailearen parte hartzea eten ahal izango du, erretiratzerara behartu edo/eta ebakuazioari ekin diezaioke.

Parte-hartzailea osasun-zentro batera eramanez gero, bera arduratuko da itzulera.

Parte-hartzaileen itzulera antolatzeko "Lasterketa uzteko puntu"etako arduradunek izango dute eta ondorengo irizpideak izango dituzte kontutan:

- "Lasterketa uzteko puntu"etatik kanpora proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden parte-hartzaileek puntu horietara joan beharko dute beren kabuz eta ahalik eta azkarren.
- 4x4 ibilgailuen bidez bakarrik irits daitekeen postuetan, salbamendu zerbitzua behar ez den kasuetan, "Lasterketa uzteko puntu" bakoitzeko arduradunak erabakiko du parte-hartzailearen itzulera-unea.
- Muturreko eguraldiaren ondorioz proba osorik edo tarte batean bertan behera utzi behar denean, ANTOLAKUNTZAK geldirik dauden parte-hartzaileen itzulera zihurtatuko du, denbora tarterik ahalik eta laburrenean.

Proba bertan behera utzi eta "Lasterketa uzteko puntu"-etara ez joatea erabaki duten parte-hartzaileak ez dira ANTOLAKUNTZAren ardurapean egongo.

10.2 Lasterketa uzteko puntuak

40 MLK lasterketan proba bertan behera uzten duten eta lesiorik ez duten parte-hartzaileek, Iturburu (19 Km), Mandubia (33,9 Km) eta Izarraizko atea (53,8 Km) izango dituzte lasterketa uzteko lekuak, beraz, beren kabuz eta ahalik eta azkarren leku horietara joan beharko dute garraiatuak izan daitezen.

15 MLK-ren kasuan Izarraitzeko atean (14,7 Km) bakarrik utzi ahalko da proba.

11 ROAD BOOK-A

ANTOLAKUNTZAK RaodBook bat prestatuko du parte-hartzaile eta laguntzaileentzako informazio baliagarriarekin, ala nola: Ibilbideari buruzko informazioa, profila, anoa guneak, laguntzaile txartela, ikusteko puntuak, eguneko programa...

Dokumentua email bidez bidaliko da izen-ematean adierazitako helbide elektronikora.

12 SAILKAPENAK ETA ERREKLAMAZIOAK

12.1 Sailkapenak

Lasterketan zehar hainbat puntutan parte-hartzaileen denborak erregistratuko dira txip bidez. Informazio hau online eskuragarri izango da.

Lasterketako behin-behineko denborak lasterketa egunaren biharamunean eskuragarri izango dira lasterketaren web orrian.

12.2 Erreklamazioak

Emaitzei buruzko erreklamazioak ahoz aurkeztu beharko zaizkio antolakuntzari, argitaratzen denetik 30 minutuko epean, eta haren erabakia errekurrizko modukoa izango da, bigarren instantzian. Haren ebazpenari, bigarren instantzian, apelazio-errekurtsoa jar dakioko Apelazio Epaimahaian.

13 INGURUMENA

Lasterketa, ia oso-osorik, natur eremuan igaroko da. Ingurumena babeste aldera guztiz debekatua dago ibilbidean zehar gauzak lurrera botatzea. Parte-hartzaileek sortzen duten zaborra helmugara eraman beharko dute edota dagokion zabor ontzitan bota.

Ibilbide osoan zehar zabor ontziak jarriko dira eta derrigorrezkoa izango da ANTOLAKUNTZAK prestatutako zaborraren sailkapena errespetatzea.

Arau hau ez betetzea Lasterketako epaileak parte-hartzailea deskalifikatzeko arrazoia izan daiteke.

Arau hau ez errespetatzea parte-hartzailea kaleratzeko nahikoa motibo izango da.



14 SEGURTASUNA

14.1 Osasun zerbitzua

- ANTOLAKUNTZAK, Lasterketaren segurtasun zerbitzuetarako, Gurutze Gorria-ren laguntza izango du eta beharrezkoa izango da, edozer ezbehar izanez gero, hauei adieraztea. Lasterketako leku estrategikoenetan izango dira parte-hartzaileen lasterketaren bilakaera jarraituz.
- Helmugan, lehen mailako zerbitzu medikuaz aparte, dutxa zerbitzua egongo da.
- ANTOLAKUNTZAK, kirol-arriskuetaarako eta erantzun zibileko aseguruia egingo dio parte-hartzaile bakoitzari eta boluntarioei aldiz erantzun zibileko aseguruia. Bai parte-hartzaileek zein boluntarioek, izena ematean ANTOLAKUNTZARI baimena ematen diete beren datu pertsonalak ibiltzeko aseguru-etxeekin polizak kontratatu ahal izateko.

14.2 Segurtasuna

Antolatzaileek, lasterketan aldaketak egiteko edota bertan behera uzteko eskubidea dute, beti ere eguraldi edo segurtasun arrazoi batengatik eta lasterketa zuzendaritzaren adostasunarekin. Lasterketaren atzealdean joango diren 2 pertsonak, erratz-lana egingo dute eta partaide guztiak ibilbidetik igaro direla baieztatuko dute.

14.3 Laguntza ezbeharretan

Ezbehar kasuetan, parte-hartzaile guztiak laguntza beharrean dauden parte-hartzaileei edota ANTOLAKUNTZARI laguntzera behartuta daude. Kasu hauetan aurreneko egin beharra behar duenari laguntza eskaintzea izango da eta ondoren ahalik eta azkarren ANTOLAKUNTZARI berri ematea (anoa gunetan, kontrol gunetan edota boluntarioei).

Arau hau ez betetzea Lasterketako epaileak parte-hartzailea deskalifikatzeko arrazoia izan daiteke.

15 ERANTZUKIZUNAK

15.1 Erantzukizuna

ANTOLAKUNTZAREN ardura izango dira ibilbidean zehar gertatzen diren istripuak baldin eta ez badira parte-hartzaileen erruagatik edo utzikieragatik gertatuak. Kasu hauetan parte-hartzailea bere buruari eta besteei egindako kalteen erantzule egingo da.

Errepideko zatietan zirkulazio arauak errespetatu beharko dira beti.

ANTOLAKUNTZAK ez du bere gain hartuko ANTOLAKUNTZAK kontratatutako aseguruaren estalduraz gainera, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.

Parte-hartzaile guztiek beren borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beren oinordekoek, erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

15.2 Ahaztu edo galdutako objektuak

Kontsignan zein ibilbidean zehar azaltzen diren objektuak 15 egunez gordeko ditu ANTOLAKUNTZAK. Epe hau igarotzean, objektuak Azpeitiko Udaltzaingora eramango dira.

16 ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK

DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketa distantzia luzeko lasterketa izanik segurtasuna bermatzea da ANTOLAKUNTZAren arduretako bat.

Hau dela eta, ibilbide osoan zehar dauden ANTOLAKUNTZAko kideek, parte-hartzaileei araudi hau bete arazteko eskumena dute.

Arauak ez betetzeak ondorengo taulan adierazten diren zigorrak izango ditu.

ARAU HAUSTEA	ZIGORRA
Ibilbide osoa ez betetzea	Deskalifikazioa
Lasterbideak hartzea	Deskalifikazioa
Animalia edo parte-hartzailea ez den pertsona batek lagunduta joatea	Kanporatzea
Dortsala ikusteko moduan ez eramatea	1h
Parte-hartzaile, antolatzaile edo laguntzaileei errespetu falta erakusteagatik	Deskalifikazioa
ANTOLAKUNTZAko aholkuei kasu ez egitea	Kanporatzea
Anoa guneeetan edota ibilbidean zehar zaborra ez sailkatzea edo lurrera botatzea	Kanporatzea
Ingurumena ez errespetatzea: Zaborra botatzea, landaredia zanpatzea...	Kanporatzea
Arazoak dituen beste parte-hartzaile bati ez laguntzea	Kanporatzea
Kontrol bati uko egitea	Kanporatzea
Derrigorrezko materiala ez eramatea	Kanporatzea
Telefono mugikorra itzalita edo hegaldi moduan izatea	Kanporatzea
Irteerako kontrola ez pasatzea	Deskalifikazioa

ADII: DESKALIFIKATUTAKO PARTE-HARTZAILEEK LASTERKETAN JARRAITU AHAL IZANGO DUTE BALDIN ETA EZ BADIRA BERRIRO ERE ZIGORTUAK IZATEN.

ADII: KANPORATUTAKO PARTE-HARTZAILEEK EZINGO DUTE INOLAZ ERE LASTERKETAN JARRAITU.



17 IRUDI ESKUBIDEAK

Izena emateak berekin dakar parte-hartzailearen berariazko baimena, ANTOLAKUNTZAK duen bere irudi pertsonala (ekitaldian zerman kirol-jantziarekin eta) edozein gailuren bidez erabili eta erreproduzitzeko. Irudi pertsonal horien helburu bakarra DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketa sustatzea da, eta, horretarako, informazio hori sare sozialen, komunikabideen, publizitate-hesien, beste edozein euskarriren eta abarren bidez zabaltzea.

Kontuan izan behar da lasterketa espazio publikoetatik igarotzen dela, eta bertarutzen den jendeak edo beste komunikabide batzuek ere hartu ahal izango dituztela parte-hartzaileen irudiak.

18 DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko araudia betez, izen ematean emandako datu pertsonalak erabiltzeko eta erantzukizunpean tratatzeko baimena ematen zaio ANTOLAKUNTZARI.

Datu horiek prozesatzea ahalbidetu zuen interes legitimoa mantentzen den bitartean gordeko dira. Nolanahi ere, emandako baimena ezeztatu ahalko du parte-hartzaileak, eta ondorengo eskubideak izango ditu:

- Irispidea: Interesdunak eskubidea du jakiteko ANTOLAKUNTZAK bere datu pertsonalak tratatzen dituen eta, hala bada, datu horiek eta egindako tratamenduei buruzko informazioa lortzeko.
- Zuzenketa: Datuen zehaztasun ezari edo osatugabetasunari lotuta dago. Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonal okerrak zuzentzeko eta bere datu pertsonal osatugabeak osatzeko.
- Ezabatzea: Interesdunak bere datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea du ("ahazteko eskubidea"), baldin eta datu horiek ez badira jada beharrezkoak jaso ziren xederako, tratamendua oinarritzen zuen adostasuna ezeztatzen bada, interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu, datuak legez kontra tratatu badira edo legezko betebeharrak bat betetzeko ezabatu behar badira.
- Tratamendua mugatzea: Interesdunaren eskubidea da gordetako datu pertsonalak markatzea, etorkizunean tratamendua mugatzeko. Tratamendua mugatzeak berekin dakar, interesdunak eskatuta, bere datu pertsonalak tratatzeari uztea.
- Aurkakotza: Interesdunak bere datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea du, kasu jakin batzuetan oinarritzen denean eta bere egoera pertsonalarekin zerikusia duen arrazoi bat aipatzen denean.
- Datuen eramangarritasuna: Interesdunak eskubidea du tratamenduaren arduradunari emandako datu pertsonalak formatu egituratu batean jasotzeko.
- Erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubidea: Interesdunak eskubidea du bere datuen tratamendu automatizatuaren oinarritutako erabaki baten objektu ez izateko.

Eskaera hauek info@domusateknik40mlk.com helbide elektronikoaren bidez egin beharko dira.

Halaber, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

18.1 Informazioa partekatzea

Inola ere ez dugu partekatzen informazio pertsonala DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketaren antolaketarekin zerikusirik ez duten helburu komertzialetarako edo marketinerako. Ez ditugu gure parte-hartzaileen zerrendak alokatzen edo saltzen. Hauek dira informazio pertsonala partekatzeko egoera mugatuak:

- Zure baimenarekin: Informazio pertsonala parteka dezakegu baimena dugunean. Horren adibide bat litzateke gure bazkideek eskainitako produktu edo zerbitzuetara harpidetzen bada (adibidez, zozketetan parte hartzea, aseguruak, banketxeekin transakzioak...); hori eginez gero, bazkidearekin informazio jakin bat parteka dezakegu. ANTOLAKUNTZAK parte-hartzailearen baimena eskatuko du bere izenean truke horiek egiteko, eta edozein unetan alda daiteke iritzia.
- Kanpo-prozesamendurako: Zerbitzu-hornitzaileak eta teknikariak ditugu, gure prozesamendu eta biltegiatze batzuei laguntzen dietenak, eta horien artean dago haien galderei erantzuten laguntzea. Teknikari horiek parte-hartzaile edo bere kontuari buruzko informazioa eskura dezakete, baina teknikari horiek ezin dituzte datu horiek erabili DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketarekin zerikusirik ez duten helburuetarako.
- Legezko arrazoiak direla eta: Informazio pertsonala partekatuko dugu hirugarrenekin, baldin eta uste badugu informazioa eskuratzea, erabiltzea, babestea edo zabaltzea arrazoiz beharrezkoa dela (i) edozein lege, erregulazio, lege-prozesu edo gobernu-eskaera exekutagarri betetzeko; (ii) DOMUSA TEKNIK 40 MLKren politikak edo kontratuak betearazteko, balizko arau-hausteen ikerketa barne; (iii) ANTOLAKUNTZAren eskubideen, jabetzaren edo segurtasunaren kalteen aurka babesteko, eta beste parte-hartzaile batzuen, karrera igarotzen den lurren jabeen edo publikoaren eskubidak babesteko legeak eskatzen edo baimentzen duenaren arabera.

Informazio ez-pertsonala (adibidez, datu agregatuak edo anonimoak) publikoki eta gure bazkideekin parteka dezakegu. Adibidez, kontrol-eremu bakoitzeko igarotze-denborak argitara ditzakegu. Informazio hori beste erabiltzaile batzuekin ere partekatu daiteke, haien errendimendua hobeto ulertzen laguntzeko. Informazio ez-pertsonala ere parteka dezakegu gure bazkideekin. Neurriak hartzen ditugu informazio ez-pertsonal hori zurekin lotu ez dadin, eta gure bazkideei gauza bera egiteko eskatzen diegu.

Parte-hartzaileak DOMUSA TEKNIK 40 MLKn izena emateko hirugarren bat aukeratzen denean, ezin dugu kontrolatu hirugarren horrek bildutako informazioa biltzea, biltegiatzea edo trukatzeta.

19 ARAUDI ALDAKETAK

Behar izanez gero ANTOLAKUNTZAK araudi hau edozein momentutan aldatu, hobetu edo zuzendu dezake.

Izen-ematea egiteak partaidea araudi eta bere edozein aldaketarekin ados dagoela adierazten du.

20 OSASUN EGOERA ARAUAK

Lasterketa egunean dagoen osasun neurrien arabera, artikulua hau eguneratu ahal izango da.



21 BESTE ARAUDIAK

RFEA-ko araudia:

https://drive.google.com/file/d/1CdU9WxaJ3zUqI5raPRD2_LKxk9J1UI1A/view?usp=sharing

World Athletics-en araudia:

<https://worldathletics.org/download/download?filename=89f28d7e-28a9-4593-b1cc-3ab68e615067.pdf&urlslug=C1.1%20%26%20C2.1%20-%20Competition%20Rules%20%26%20Technical%20Rules>

